

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK

LURRAREN ETA INGURUMENAREN ZIENTZIETAKO AZTERKETA

2007/2008 IKASTURTEA

JARRAIBIDEAK:

Bi aukeretako bat hautatu, eta bere lau galderei erantzun.

A AUKERA

1. aztergaia (2,5 puntu)

Energia-baliabideak.

1.1. Deskribatu, gaurko ustearen arabera, ingurumena gehien errespetatzen duten energia motak. Komentatu horien alde onak eta txarrak.

1.2. Zein da gaur egun ikatzaren erabilera nagusia, eta zein dira bere errekontzak sortzen dituen ingurumen-arazo nagusiak?

2. Aztergaia (2,5 puntu)

Ur baliabideak.

2.1. Akuifero kontzeptua. Azaldu zein diren bere kutsaduraren arrazoi nagusiak.

2.2. Deskriba itzazu, baliabide hidrikoen jaitziera ez dadin gerta, beharrezkoak ikusten dituzun neurri orokorrak.

3. Aztergaia (2,5 puntu)

Kanpoko sistema fluidoak: atmosfera.

3.1. Azaldu zein diren atmosferako CO₂-ren kontzentrazio gehikuntzak ekartzen dituen arriskuak.

3.2. Zein dira atmosferatik CO₂ kentzen duten karbonoaren prozesuak eta zein CO₂ askatzen dutenak? Nola eragiten dute giza jarduerak ziklo horretan?

4. Aztergaia (2,5 puntu)

Ekosfera.

4.1. Dibertsitate biologikoaren egungo kontzeptuak, 1992an Río de Janeiroko gailurrean definitutakoak, hiru konplexutasun-maila jasotzen ditu: dibertsitate genetikoa, espezie-dibertsitatea eta ekosistema-dibertsitatea. Azaldu bakoitza.

4.2. Aipatu bi arrazoi munduko biodibertsitatearen urripena ekartzen dutenak, eta arazoa arintzeko har daitezkeen bi neurri.

B AUKERA

1. aztergaia (2,5 puntu)

Lurzorua.

- 1.1. Azal itzazu lurzoruko ur- eta haize-higaduraren prozesuak.
- 1.2. Topografia-faktorea lurzoruaren higaduraren faktore gisa. Azal ezazu laborantzen eta zaintza-praktiken garrantzia.

2. Aztergaia (2,5 puntu)

Ur baliabideak.

- 2.1. Uraren kutsadura: kutsaduraren jatorria eta motak.
- 2.2. Deskriba itzazu uraren kalitatea definitzen duten parametroak.

3. Aztergaia (2,5 puntu)

Kanpoko sistema fluidoaren dinamika.

- 3.1. Dinamika ozeanikoa: gainazaleko korronteak eta korronte sakonak.
- 3.2. Dinamika atmosferikoa: azal ezazu zirkulazio atmosferikoaren eskema orokorra.

4. Aztergaia (2,5 puntu)

Ekosfera

- 4.1. Eskualde bateko bost herri instalazio bakar batean desagerrarazi behar dituzte hiri hondakin solidoak. Inguruko eremua aztertu da, eta hiru aukera aurreikusten dira: kontrolatutako zabortege bat, erraustegi bat eta konpostaje-planta bat. Zertan datza hondakinak desagerrarazteko hiru metodo hauetako bakoitza?
- 4.2. Azal itzazu 4.1 aztergaiaren agertzen diren hondakinak desagerrarazteko hiru metodoetako bakoitzak dituen abantailak eta desabantailak.